

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko ekainak 12 / II. urtea / 28. zenbakia



Iaz izan ziren istiluen ondotik, Alfredo Jaime alkateak Riau-Riaua jaietako egitarauan ez sartzeko asmoa agertu zuen, eta aste honetan baieztatu du: Korporazioa ez da batera joango San Saturninoraino ekainaren 6an, bezperetara. Udal taldeak eta peñen artean haserrea sortu du alkatearen erabakiak, «ez bait da soluziobiderik bilatu», eta ekitaldi alternatiboa egingo ote den zurrumurrua zabaltzen hasia da. 1912an jaiotzen ekitaldi bitxia desagertzeaz dagoela adierazi dute dagoeneko batzuek.

Riau-Riaua, kolokan

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Etxetik gertuko plazan bildu, koadrila osatu eta Iruñearen 'Atez Kanpo-ko' inguruetara irtetzea izan zen, gazte-gazterik nintzela, bozkario gehien sortarazten zidan jolasbidea. Hola, eta hamalau urte egin baino lehen, Lezkairu, Magdalena, Arga hibiaren bi ertzak, Aranzadiko penintsula eta beste, korrituak nituen poz-antzean, mentura bila.

Pentsatzen jarrita, bihurkeria batzuk kenduta deus gutxi gehiagorik ezingo nuen konta gertaldi haietaz. Baina hori da gutxienekoa: gure buruz libre izan eta eskurako mundua nolakoa zen jakitera urreratu nintzen urte xalo haietan. Denboraren bueltan, akabo pagotxa, bukatu zen paradisu hura.

Urteak igaro eta, ordea, beste era batez begira egoten naiz txikitango paraje haietatik berriro ibiltzerakoan. Eta ezin dut ukatu: melankoniak bultza egiten nau frankotan, garaia-garaiko ibilketa berei ikusten bat egitera. Lopez-en Frontoia ez da zelai eta galsoroz inguratuta ezagutu nuen hura, lagunaren baratza zegoeneko tokian zazpi pisuko etxe bat lekutzen da orain... Zerrendak luze joko luke, eta nahi nuke, pixka batean bada ere, nire gogozko leku batean atentzioa jartzea: Gotorleku eta Gazteleku barrutian, hain xuxen.

Helburu militar hutsak bete asmoz eta hiritarren bortxalanez balioaraziz, gotorleku militar trinkoa eraiki zuten gure aurrekoek, orain lau mende hasirik, Felipe IIaren agindu pean.

Mutikoa izanik, gune izugarria zen hura. Sastrakak nonahi, harresien arteko pasabiderik eza, 'herio' lakua, iluntzeko irudi beldurgarriak... Eta mundu haren erdian: sarbiderik gabeko eraikuntza erraldoia.

Urteen bidez, eta Frankoren ondorengo lehenengo udal-demokratikoekin batera, Ziudadela, agintze zibilaren menpe jarri zen, Defentsa Ministeritzari diru-sos politik ordainduz gero. Ateak, zabaldu ziren azkenik. Hura izan zen bihotz-zimikoa haren barrua lehen aldiz begiztatu nuenean!

Txikitari bezala orain ere maiz joaten naiz Ziudadelara. Gozagarriak, bestelakoak dira, ordea. Armategiak artegintzarako toki bihurtu izana pozteko moduko aldaketa izan da. Instrukzioa egiteko soldaduek erabilitako belazeak arrumakoak egiteko darabiltzate gazte-bikoteek. Aiton-amonen topagune ere bada, eta paseialari eta korrikalarientzat leku ezin estetikoarekin zer ikusirik izan dezakeenik.

Izan ere, Larrea eskultoreak Ziudadelan maixuki paratuta duen metalezko eskultura burutzean, ez zitzaion burutik posa ere egingo, denboraren buruan, dozenaka haur barneratuko ziren espazio konkaboetatik zehar, guk lehen egin bezala, haiek orain ere, bizi-posa eta mentura bila joateagatik.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Guillermo Perez Villata Cadizeko pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñean, Gotorlekuko Arma aretoan, ekainaren 28a arte. Nafarrora ekarri dituen lanak azkeneko hamabost urtetan egindakoak dira, gai desberdinekin.

Jose Javier Irisarri Itxaso, 'Irisarritxaso' margolari iruñiarren erakusketa izanen da ikusgai Lankide Aurrezkiaren Iruñeko erakustaretoan, ekainaren 21a arte.

ANTZERKIA



'**Agujero de juegos**' ('Joku zuloa') izeneko muntaia eskeiniko du igandean, ekainak 14, Zizur Nagusian PAI antzerki taldeak. Emanaldia eguerdiko 12,30etan izanen da.

MUSIKA




'**Tradizioa eta berrikuntza uztartuz**' izenburuko mahaingurua antolatu dute gaurko Goizuetan. Fermin Muguruza Negu Gorriak taldeko buruak, Puri Artzelai Matraka taldekoak, eta Joseba Tapia trikitalariak hartuko dute parte bertan. Mahingurua arratsaldeko zazpitan izanen da.

Rock audizioa Balerdi Balerdiko Sergio Ibarrolaren eskutik entzuteko aukera izanen dute

Urrozko bide honetan Iruñetik gertu dagoen ibilaldi itxuroso eta lasaia egin dezakegu, bereziki aproposa txirrindulaz egiteko.

Mendi eta ibar ezagunetik zehar, Taxoareko mendizerra eta Elomendi ikusi ahal izango dugu. Gero eskualde bidean sartzean landare berdeak ugaritzen dira, eskualde fresko eta itzaltsuago bait da, bideko aldeetan zuhaitz ilara bana izanik. Gero zitu landa gehiago, ezkerrean Arangurengo mendizerra eta eskuinean Izaga mendia ikusi ahal izango ditugu. Gainerakoa zitu landak eta inoiz pinu eta zuhaitz mediterraniotarrak.

Atsedena hartzeko eta artea eta historia apur bat ezagutzeko ere lekuak ez dira falta. 240 bide nagusia uzten dugunean bideko aldeetan zuhaitzak daude, egun beroetan gelditzeko egokiak. Urrotzen ere gelditu ahal gara, eta aurrerago Ibirikun iturria dugu. Artaizen XII. mendeko eliza



erromaniko ederra dago.

Bide nagusiak oso ongi daude txirrindulaz ibiltzeko, eta are hobeto 240 errepidea, bidertzea garbi eta zabala bait du. Bestea

ere, eskualde bidea, ongi dago, agian gaikien dagoena Urrozaino tartea, nahiz et txarra ez izan. Hemendik aurrera Iruñeraino oso ona da.

eta Xabier Muguruza, Mekanizien taldekidea izanen dira

Goizuetan ekainaren 17an. Ruskara zerbitzuak antolaturiko ekitaldia arratsaldeko zazpitan izanene da

'**Hamabost urte euskal Roken inguruan**' gaia aztertuko dute ekainaren 17an Leitzaan. Josu Zabala Hertzainak taldekoa, Toño Muro Balerdi Balerdikoak

Hegoamerikako musika entzuteko aukera izanen dute Arakilen bihar larunbatean. Udaberri Jira Biraren barne Toderia taldeak eskeiniko duen kontzertua gaueko 23,00etan hasiko da.

HITZALDIAK



'**Euskararen galera eta aterabideak**' izenburuko hitzaldia eskeiniko du gaur Xamarrek Lekunberrin. Mintxasenean Kultur Etxean izanen da arratsaldeko 20,30tatik aurrera.

BERTSO SAIOAK



Sebastian Lizaso, Iñaki Murrúa, Euskitze eta Mikel Mendiza-

bal bertsolariak Lekunberriko frontoian abestuko dute igandean. Euskararen eguneko egitarauaren barne dago ekitaldia eta arratsaldeko bostetan izanen da.

BESTELAKOAK



Euskalerrria Irratiak udako oporrei buruz saio berezia prestatu du bihar larunbaterako, hilak 13, 'Agorraldi bestajira' izenarekin. Egrualdiaren aldetik meteorologoen zer dioten, medikuen aholkuak, landa turismoa, eta abar luze bat jorratuko da bertan.

Euskararen eguna ospatuko dute ekainak 14an Lekunberrin. Pala partiduak (Mariñelarena -Etxarri/ Olo-Urra), kale animazioa haurrentzat, aizkolariak (Arrospide-Nartxi Saralegi/ OLasagasti-Erxebeberen kontra), harrijasotzailek, orga jokua, dantzariak eta abar luze bat ari tuko dira goizean. 14,30etan herri bazkaria izanen da Lekunberriko frontoian eta ondoren bertsolariak eta pailazoak ikusteko aukera izanen da besteak beste

Herri kirolak ikusteko parada izanen da Antsoianen Euskal Jaien egitarauaren barne. Artaburuak, Trontzalariak, Txinga probak, Zaku lasterketa, eta abar luze bat..., talde hauek partaide izango direlarik: Antsoingo Gimnasioa eta Gazte Berriak-eko taldeek, baita kanpoko taldeek ere.

KAZKARROAN



Arangurenekin akordioa asko zaildu zen hasieran ez zeuden ordezkariak agertu zirenean».

Miguel Sanz
Presidenteordea

«Indurainek erakutsi du buru argia duela».

Miguel Etxabarri
Banestoko zuzendaria

«Erribera zeharo baztertu dute Expo-tik».

Jose Antonio Perez Sola
Tuterako alkatea

«Denok dugu ezintasuna Parte Zarreko bezalako is-tiluei aurre egiteko».

Jose Luis Corcuera
Espainiako Barne Ministroa

Ruben Beloki



Pilotaria

Burlatako pilotaria denen ahotan dago berriro ere, baina orain ez hainbeste bere jokua dela eta, baizik eta enpresa berri batek profesionaletan aritzeko egin dion eskaintzagatik. Berrogei milioi pezeta paratu diote mahai gainean hamazazpi urteko mutikoari, Eugiri eskeini zioten baino gehiago, baina honek Olinpiadak jokatu egin nahi dituela adierazi du argi eta garbi. Ondoren, soldadutza dauka zain, eta soilik Iruñean egin ahal izatekotan emango luke pausua. Izugarritzko patxada eta lasaitasuna dauka Rubenek, bere jokua adierazten duen adinakoa, eta ongi pentsatuta egin nahi ditu gauzak.

Gregorio Monreal



Ikerlaria

Eta iun (Ega ibarra) jaiotako jurista, ekonomilaria eta historialaria Eusko Ikaskuntzako lehendakari aukeratu zuten iragan astean egindako bozketan. Joxemiel Barandiaran zenaren lekua betetzeko, nafarrekin etapa berri bati ekingo dio erakunde honek, eta Euskal Herrian ikerketa lanetan aritzen diren guztien ahaleginak bildu eta koordinatzeko. Monrealek nagusitaun handiz gauditu zituen bere bi lehiakideak, Juan Plazola eta Imanol Olaizola. Kargua hartu bezain laister, Barandiaranen ordezkoa ez zuela izan nahi azaldu zuen, «Barandiaranek ez bait du ordezkorik».

Alfredo Landa



Aktorea

Aktore iruindarrak —berak behin eta berriz donostiarra dela esaten badu ere— Espainiako Arte Ederretako urrezko domina jaso du aste honetan bertan, Rafael Moneo arkitektoarekin batera. Bi domina horiekin, bakoitzak bere arloan egindako lan izugarria omendu nahi izan da, eta gutxitan izango da hain merzitarikoa. Landak adina far atarazi duenik ez da erreza aurkitzen, eta bere pelikulak klasikoak izan dira eta oraindik bere horretan jarraitzen dute. Moneo arkitektoa munduko onenen artean kokatzen dute aditu guztiek, eta berarenak dira mende honetako eraikin adierazgarrietakoak.

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrentzako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortziritako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratia saioa. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Iratxetako garaia, Orbako eraikin adierazgarrietakoa.

JOXE LACALLE

Orba ibarreko istoriak, ametsak eta kondairak, liburuxkan jasoak

MATTIN KAPITANSORO / TAFALLA


'Orba ibarreko istoriak, ametsak eta kondairak' izena duen liburuxka atera berri du Pedro Mari Flamarique apezak, dagoeneko serie baten laugarrena. Historia, pasadizo eta bitxitasun franko, aspaldian biztanle ugari zuen baina egun hutsik gelditzen ari den ibar batendako.

Flamariquek, orbartarra berez, urteak eman ditu zaharregandik eta artxiboetatik kontakizun eta datuak biltzen, eta emaitzak berak eskuz egindako liburuetan jaso ditu orain arte. Interes etnografiko handikoak, era xehe eta apalez osatzen ditu apaizak, orbartar edota bere ondorengoei begira eginak bait dira. «Ez dut inoiz —dio Flamariquek— lan etnografiko sakon eta kritikoa

egiteko asmorik izan, hori beste batzuek egin behar dutelako. Bertako gauzak zabaltzea da helburua, eta gero, norbaitek horrekin zerbait sakonago egin nahi baldin badu, egin dezala, baina bere kabuz».

HURRENGO ALEA TOPONIMIAZ

Esan bezala, hau da laugarren alea, eta beste bat uda honetan amaituko duela adierazi du. Ibarrekō toponimiari buruzkoa izango da, eta dagoeneko bertako hogeitabost herrietako toponimia xumea dauka bilduta. «Badauzkat datu guztiak, baina hau ere ez da azterketa sakon bat, baizik eta bilketa lana. Datu guztiak eman dizkiet horretan ari direnei —Jimeno Jurio eta abarrei—, eta haiek egin beharko lukete lan kritikoa».



Pedro Mari Flamarique. J. LACALLE

Mota guztietako gaiak ukituta, Tafalla ondoan dagoen ibar honetako bizitzaren zati handi bat da jasoa bertan, eta argitaletxeren batek esana dio jada liburu batean biltzeko bere asmoa. Flamariquek, baina, ez du interes berezirik erakusten horretarako. «Ez naiz handinahi. Nik gusto handiz egiten dut lan hau, eta garrantzitsuena, hain zuzen ere, hori da, lan hori egin izana. Gero, geroak. Norbaitek nahi badu ipuintxo hauek argitara eman, egin dezala, baina nik ez dut egingo».

Orba ibarra hogeitabost herriak osatzen dute, baina egun, soilik hamahiruk mantentzen dute populazioa. Herri adierazgarrienak, Barasoain, Garinoain eta Puii dira.

ORBARTARREN GAIXOTASUN OHIZKOENETAKOAK

Flamariquek jasotakoaren artean, bitxikeri asko, hala nola XVII eta XIX mendeko orbartarren gaixotasun ohizkoenetakoak: ezpain minbizia, 'minak' —ezagutzen ez ziren gaixotasun gehienak—, gaixotasun 'gaixtoak' —aurrekoaren antzekoak—, 'barneko gaixotasuna' —tristezia? bakartasuna?—, *carbunco* —ganaduak, bai lanean edo 'harremanetan' kutsatutako gaixotasuna—.

mintzoak

Aspaldiko kontuak

● Herri kiroletan eta batez ere pilota yokoan, zaharrenetakoa hain segur 'laxoa' dugu. Baztan-Erreka eskualdean yosteta nagusia eta erreliste haundikoa. Noiztik ote dator 'Laxoa' ziur ezta kigu baño aspaldikoa dela bai.

Baztan alde huntan eta mendi zelaietan non-nai aurkitzen ditugu pilota-soro deitzen diren zelai guneak, artzainak soro hoietan pilotan aritzen zirenak. Desafiozko partidak ere yokatu izan dira joan zen mendean eta bai mende hunen hasieran ere, alduar eta baztandarren artean ontzako urreak ere yokoan zabiltzabela. Baztan-Erreka pilotarien artean ere zer nolako gudukaldiak egiten ote zituzten. Garai hartan ez zen Txapelketarik izaten, orduan ez zen horrelako gauzarik, Txapelketa lehiaketa berria dugu, oraiko antolakuntza berria. Erran dezagun ere desafiozko partida hoiek mugiarazten zutela yendea, beti izaten baitziren pilotari hobereenen arteko gudukaldiak.

Onen artean partida onak izanen ziren hain segur baina pilotari xumeen artekoak ere ez ziren txarrak eta baziren desafiozkoak ere. Adis-kide batek erranik aipa dezadan aspaldiko denboretako gertakizun bat.

Erratzuko Gorostapolo hauzoko plazan bazuten desafiozko partida bat antolatua, erratzuarrak, alduarren kontra.

Alduar pilotariak etorri ziren Gorostapolora eta hantxe erratzuarrak ere heken zain. Yende ere bildu omen zen. Partida yokatu aitzin alduarrek nahi zuten lehenik yoaldi batzuk egin plaza ezagutzeko. Hasi omen ziren sakeak eta erreferak egiten eta holaxe yoaldi batzuk osatu zituzten. Erratzuko pilotariak ikusi zutenean aldadurren yokatzeko moldea eta heken yoaldi biziak, izitu ziren eta ez zuten partidik yokatu nahi, aisa galduko zutela eta desafioa urratu zuten. Eztabaida franko izan omen zituzten, sekulako kalapiten eta aserre, baina dudarik gabe lenagotik ezpaitzuten señalerik bota, beti ere partida desegin zen.

Alduarrek kolera gorrian itzuli ziren bere herrira eta bidean zoatzilarik, aurkitu zituzten iretze meta guziek errakan beiti bota omen zituzten eta holaxe akitu ziren egun artako espantu guziek.

Gertakari bitxiak lenagoko hixtorio xelebreak.

Mikel Aingerua

Migel Aingeruak egin digu urteroko agerpena, Baztan eta gure eskualdeko herrien barna ibilaldia eginik. Ohiturari yarraikiz hemengo euskaldun yendeak maite du Migel Aingerua eta herri guzietan, denek debotki gurtzen dute gure Zaindaria kar haundiz kantatuz 'Migel gurea, gorde Euskalerrria'.

Noiztik ote datoz Migel Aingeruaren ibilaldiak Nafarroako herrietan barna? Urte aunitz bai, mendez mende irauten duen ohitura hunkigarria. Urteak gan, urteak etorri, aldakuntzak ere nabari dira eta gaurko egunean ibilaldiak ez dira duela 60 urte bezalakoak. Orduan mandoz eta oñez egiten zuten ibilaldia, herriz herri bidez bide maldak eta zelaia iraganik. Orain gauzak errexu dira eta ibilaldiak autoz egiten dituzte. Hoiek guziak horrela baina Migel Aingeruarenganako maitasunak irauten du eta zaletasuna bizirik dago, horrek du balio.

Salbatore

Maiatzako hilabetea joan da kukuaren kantarekin eta Salbatoreak ere ospatuak ondar aste hortan. Herrietako besteri hasmenta eman zaie Salbatoretan Irurite eta Urdazubik beren herrietan bestak ederki ospatuz. Urtearen lendabiziko bestak baitira, yende aunitz biltzen da bi herri hoietan eta izaten da mugimendu. Salbatoreak pasa eta Ekainan sartu gara eta hilabete hunen lehen egunak badauka bere garrantzia.


Baztanek badauzka mendi aunitz, dermio zabalak, bazka-lekuak ere ugari, hoiaren artean Erdiz, Belate, Lizartzu eta gehiago ere. Ekainaren lendabiziko egunean sartzen dituzte beiak Erdiz eta Belateko bazkalekuetan. Garrantzi handia dauka horrek nekazarientzat, beren beiak bazka aberats hoietan alatzen direlaketoz eta bai ongi zainduak ere, hor egoten baita 'Uneia' barrendegi hori zaintzen. Erdizko bazka-leku horrek badauzka 14 kilometroko ingurunea dena etxie alanbreztaturik. Berrendegi hortan mendi haundiak badira, hoiaren artean Okoro 1.259 m., Larrakarte 1.177 m., Zagua 1.149 m., Aztabizker 1.129 m. Urte ona gerta dadiela batere makurrik gabe eta guk nai bezala.

Mariano Izeta Erlojularia

Azken alean Orbako despopulatuak zehazten dira, oro har hogei: Agara, Arkanegi, Ariamain, Arrazubi, Azuriz, Azpe, Katalain, Etxano, Elizarte, Erdara, Gandiriain, Iriberrri, Lepuzain, Musker, Oibar, Pozuelo, San Lorenzo, San Roman, Bariatrain, eta Beraiz.

Halaber, Tafallarako migrazioaren izen ezagunenak aipatzen dira. Tafalla eta Iruñerako emigrazioa Gipuzkoara egin ze-

naren ondorengoa da, 50 eta 60ko hamarkadetan Beasain, Legazpia eta Zumarraga izan bait ziren orbartarren norakoak. Tafallan errotu direnen artean, Amatriain, Agirre, Ainzua, Armendariz, Arrazubi, Baigorri, Cabodevilla, Ziriza, Flamarique, Garaioa, Gorriz, Ibarrola, Janariz, Lerga, Liberal, Mondela, Marco, Ojer, Olkoz, Pernaut, Soltxaga, eta Zaritiegia agertzen dira, beste hainbesten artean.



Katalaingo basiliza, erromes frankok bisitatua.

JOXE LACALLE

Euskal Herriko lehendabiziko planetariuma Iruñean zabalduko da urte honen ondorean, lanak amaitzeko emandako epeak burutzen baldin badira. Hil

honetan bertan paratuko da proiektorea, munduan egiten den handienetakoa —20 metroko diametrokoa—, eta honi esker ortzia eta izarren ezaugarri eta bitxikeri guztiak

ikusitako ahal izango dira berrehun eta hogeitabost pertsonendako edukiera izango duen aretoan. Gure inguru eta goian daukaguna hobeki ezagutzeko parada aparta.

Izarrendako bitxiontzia Iruñean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nork ez du inoiz amestu eguzkiaren zentzura bidaia egin, edo galaxia ezberdinen azterketa kanpotik egiten duela; hortik goitik menperatzen gaituen gune zabal horren sekretuak ezagutu, kutxa ireki nahi duela? Nor ez da noizbait eseri mendian edo etxearen balkoian, zeruari begira, udako gau garbian?

Gizakiak betidanik izan die begirunea eta miresmen berezi bat ortzi eta izarrei, eta literatura, zinema eta zientziak berak, bere aurkikuntzekin, mitologia anitza sortu dute galaxia, konstelazio eta abarren inguruan.

Planetarium batean ortzi horren azterketa egiten da, efektu berezien bidez, eta begiak ikus ditzazkeen izar eta planeta baino gehiago agertzen dira proiektore handien bitartez, ganga erraldoi batean. Izarrak eta beren kokapena ezagutzeaz gain, ortziaren historia, eboluzioa eta gertakari bereziak antzestzen dira bertan.



Javier Armentia. JOXE LACALLE

Besaulkietan eserita daudenak, espazialuntzian bidaia egingo bailuten.

MUNDUKO PROIEKTORE AURRERATUENETAKOIA

Iruñeko Planetariuma lehendabizikoa izango da Euskal Herrian, eta bertan paratuko den proiektorea munduan dagoen aurreratuenetakoa izango da, Javier Armentia bertako zuzendariak azaltzen duenez. Zeiss Alemaniako etxekoa, 20 metro-

Izarrak eta beren kokapena ezagutzeaz gain, ortziaren historia, eboluzioa eta gertakari bereziak antzestzen dira bertan, ganga erraldoi batean. Besaulkietan eserita daudenak, espazialuntzian baileuden.

tako diametro dauka, eta behin eraikinaren lana amaituta, hile honetan bertan paratuko da. Ondotik, eraikinaren hornidura egingo da, eta zabaltzeko data frankotan atzeratu bada ere, urte honen amaiera baino lehen irekiko dela iragarri dute jadanik.

Iruñeko planetariumaren historiak joan den legengintzaldian izan zuen hasiera, hiribururako azpiegitura zehazten hasi zenean. Akordioa lortu zen orduan udala, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Aurrezki Probintzialaren (CAN) artean: udalak lurra



Kanpotik hots samarra, barrutik ditu berezitasunak Planetariumak.

emango zuen, eta Nafarroako gobernua eta CAN finantziarioz arduratuko ziren.

Proiektu lehiaketa izan zen, eta Iñaki Aurrekoetxea, Iñigo de Viar eta Josu Aurrekoetxea arkitekto bizkaitarrek aurkeztutakoa izan zen aukeratua. Beraien hitzetan, 'izarrendako bitxiontzia'.

Kanpotik hots samarra, barrukaldea ditu berezitasun gehien, eta berezkoak dituen funtzioak ez ezik, beste erabilerak ere daude irekiak egindako proiektuaren arabera. Horrela, proiektuaren aretoan, proiektorea bera zoluaren azpian egongo da, hutsa eta hezetasunaren kontra babesteko, baina baita ere beste erabilerak ziurtatzeko.

Areto honetan berrehun eta hogeitabost pertsonendako eserleku izango dira, nahiz eta edukiera handiagoa izan. «Para zi-

tekeen laurhun bat eserleku —azaltzen du Javier Armentia— baina lehentasuna eman nahi izan diogu erosotaunari. Gainera, Iruñeak ere ez du askoz gehiagoren beharrik». Proiektzio aretoaz gain, mintzaldietarako aretoa ere izango da, laurhun pertson inguruendako.

BI KULTUREN ARTEKO TARTEA

Baina ortziaren magia dastatu eta arakatzeko izateaz gain, astronomiak dituen berezitasunak ere azpimarratu daitezkeelakoan dago Javier Armentia, bereziki bi kulturen —zientzia eta herriaren kultura— artean dagoen tartea gainditzeko. «Gure zerua zeharkatzen duen izarren multzoari Santiagoko bidea esan diogu betidanik eta horrek erreferentzi kultural eta historiko garbia dauka. Hau da, or-

JOXE LACALLE
tzia eta izarrez hitz egiterakoan, artea, historia, literaturaz hitz egin daiteke, eta azken finean, astronomiaz aritzen gara».

Planetariumak ere irakaskuntzan eta astronomiaren inguruan dabilzan taldeekin harremanak izango ditu, eta zientzia honek jendearengan duen garrantzia azpimarratzen du Armentiak. «Astronomia zientzi aurreratuenetakoa da, baina, era berean, zaleen taldeak dituen mota bereko zientzi bakarra da. Hain zuzen ere, edonork ikus bait dezake zerua. Orobat, oso lotuta dago jendeak bere buruari askotan egiten dion galdera askorekin: nondik gatoz, nora goaz, eta abarrekoak. Aurkikuntza bat izanez gero, berehala gainditu egiten du zientzia bera, eta hori garbi gelditu da Big-Bangi buruz azken teoriarekin».

Besaulkia zelaiaren erdian

P.U. / IRUÑEA

«Eseri besaulki batean, zelaiaren erdian, zeruari begira, eta eskuan ortzi osoa mugitzeko tresna batekin. Imaginatu zerua jiratu dezakezula, azkartu, atzetik aurrera bisitatu, duela milaka urtetara bidaia egin, izarren zentzura joan, ilargian pausatu, lurra kanpotik ikusi... guzti hori da planetariuma. Balizko bidaia da, irudipenezkoa eta tresna teknikoaren bitartez sortua, baina ikusten dena errealitatearen antzekoa da».

Javier Armentia zuzendaria baikor da jendearen aldetik izango duen erantzunaren aurrean, gauza askorengatik. Lehendabi-


ziz, Euskal Herriko bakarra izateaz gain, gertuena Madrilen dagoelako. Honek, bere ustez, kanpoko bisitari asko erakarriko du Iruñera.

Halaber, programazioa frankotan aldatuko da, eta jendeak behin baino gehiagotan joateko ohitura hartuko duelakoan dago. «Zinemara joatea bezalako ohitura sortuko dela uste dugu. Izan ere, 'filma' asko botako dugu, denak desberdinak, eta urtero aldatu egingo da programazioa. Honek, eta berria izatearenak, ziurtatzen du nolabait lehendabiziko urteetarako arrakasta. Gainera, honi gehitzen badiogu irakaskuntzan ere erabiliko dela, eta larogei mila ikasle inguruk egin-

go duela bisita urtero, Planetariumak, dagoeneko, badu justifikazioa».

Halaber, eta teknikoki oso aurreratua dagoen tramankulua- ren gorabeherak ikusteak sor dezakeen jakinminaz aparte, beste interesak era baduela dio Armentia. «Jendeari gustokoa zaio zerua ikustea, eta hori, berez, erakartzeko gai bada. Baina horretaz gain, jendea jabetzen ari da mundu oso bat dela honakoa, eta munduaren arazoak denon arazoak direla. Ikuspuntu globala, orokorra, alegia, nagusitzen ari da. Horregatik, ekologiaren ikuspegitik ere, ezin dugu ahaztu hor goian dagoena, ikusten dugunaren erdia bait da».





Zenbait hondakin zakarretara botatzen dugunean, bizitza-ziklo berri bat hasteko aukera galtzen ari gara. Hondakin soliduak birziklatzeak, papera, beira, plastikoak, metalak eta abar aprobetxatzeko aukera ematen digu... beste berri batzuk egiteko. Material horiek besteetatik bereizten badituzu, lagundu egingo duzu errekurtsio naturalak hobeki erabiltzen, energia aurrezten eta ingurugiroa zaintzen.

Birziklatzea bizia ematea da



Gazteendako Zokoa

Urretxoria

Oriolus oriolus
Afrikatik etortzen da
urtero
Zail ikustekoa
Nafarroan zabaldua



Urre kolorekoa

Moko luze eta zorrotzekoa, insektu, basafritu —piku eta gezeziak— eta bikoak ditu gogokoak, eta horiek dira bere elikagai nagusienak. Urretxori arrak, bere izenak ongi adierazten duen bezala, luma hori-laranjak eta hegaltza dauzka. Emeak, baina, berdeskak dauzka lumak, eta bularraldea ñabarra. Maiatza aldera heltzen da Afrikatik gure basoetara, hango beste txori mota askorekin batera, eta ibaien ondoan dauden zuhaitzietan ibiltzen ohi da: makalak, haltzak eta sahatsetan, bereziki.

Nahiz eta, bere kolorea dela eta, ikusgarri oso izan, ez da errez ikustekoa, beti zuhaitzen kuletetan aritzen bait da, oso garai. Bere txofrakia zaila da ikustekoa horregatik, eta belarra, hostoak eta, batzutan, goroldioak osatzen dute. Oso sakona egiten du, hai-zeak txorikumeak bota ez ditzen.

Iraila aldera, Afrikarako bidari ekiten diote berriro, eta oso ugariak dira Kenya eta Ugandan, batzutan Hegoafrikaraino heltzen badira ere.

Nafarroan nahiko ohizkoa da, baina ez ugari. Iparraldean ez da bizi, ezta Bardeetan ere.



Zuhaitzen iraultza

ION MATXAIN

—Azkar etor zaitzete nirekin, zuhaitzen iraultza hasi da eta!— hagitz urduri eta presaka sartu zen Kapitalist tabernan. Bertan Dinusmith eta bere txakurra zeuden.

—Lasai zaitzez!— erran zion Dirusmithek, —zer gertatzen da?

—Garagardo bat, mesedez. Ai! Munduko zuhaitz bakarrak gelditzen ziren Euskalherria izeneko leku urrutia batean. Bertan gure enpresak lantegi bat paratu behar zuela jakiterakoan, bertako jende aunitz, Ekologist eta Komunist buru zeudela, matxinatu dira, palak deusestuz, kalte anitza eginez gure inguruko lantegietan.

—Kabroi alenak! Ekologist eta Komunist akatu behar ditugu. Badakit nola. Gas-kontrako maskarak kentzen badizkiegu, hil egingen dira— erran zuen Dirusmithek. —Matxinada hau mundu osora zabaltzekotan, hilik gaude.

—Badago arazo bat,— Kapi-

talistek erantzun zion, bere maskara ahotik kenduz, garagardoari zurrutada bat emateko. —Han, Euskalherrian ez darimate ez maskarik, ez CO2ren aurkako jantzirik, a, eta ez daukate hiru begi, bi baizik, Arras arraroak dira bertan.

Hau EEBBetan gertatzen zen bitartean, Euskalherrian Pagoa,

Euskal Herrian Pagoa, Haritza, Urritza, Gaztainondoa eta hainbat zuhaitz gehiago, beren adarretan metrailetak harturik, munduaz jabetzen hasi ziren.

Haritza, Unitza, Gaztainondoa eta hainbat zuhaitz gehiago beren adarretan metrailetak harturik, munduaz jabetzen hasi ziren. Munduko bertze herrialde aunitzetan jendea beren alde pa-

ratu zen, Kapitalist eta Dirusmithen aurka, beraiek izandu zirelako mundu osoko hiltzailak, herrialde orotan lantegiak paratu zituztelako, bertako eta hemengo herrialdeak zapalduz.

—Aizu, kamarada Ekologist, bakarrik EEBB geratzen zaigu askatzeke. Mundu osoa gure alde dago, herri orotako Kapitalist eta Dirusmith guztiak akatu ditugu, eta bakarrik horiek geratzen dira.

—Komunist, landare oro, mundua salbatzear dago. Bakarrik Kapitalist eta Dirusmith akatu behar ditugu. Zuhaitzak, zuek izan zarete matxinadaren buruak, jaun eta jabe, nagusiak. Gizakiok eginiko kaltea konpondu nahian edo, zuei Kapitalist eta Dirusmith akatzeko plazerra uzten dizuegu. Aurrera! Gora mundu berdea!

Askapen guda hau errazki irabazi zuten Ekologist, Komunist eta zuhaitzek, baina Kapitalist eta Dirusmithek eginiko kaltea ezin zen bere osotasunean konpondu.



BASAJAUN

Aizu! nolatan zenbilen atxo erosketarako erabiltzen diren horrelako gorpildun karrotxoarekin gauzaz beteta?

Egitan behar dituzuela hainbeste tontakeri eta txotxolada? Ez al zara konturatzen gizakiaren bere herrietako arazorik handiena hondakinak direla eta horretarako zabortegeak eraiki behar dituztela?

Bai, bai, ez izan dudarik, egia borobila bait da: kontsumismoa lurrarako ere kaltegarria oso da, ez bakarrik poltsikorako.

Harreman handia dago herri aurreratuenean dagoen kontsumismoa eta arazo ekologikoen artean. Produktu kaltegarriak egiten dira eskaeraren funtsezko gora-kadetan, eta gero, estabilitatea baldin badago, bertan mantentzen dira. Zergatik uste duzu 'YFC-ko' produktuak ez hartzearena aholku bezala zabaldu zela?

Kontsumismoak, berez, herri behartsuen aberastasunak lapurtzen ditu, eta gero morrontza baten azpian bizitzera behartzen ditu. Hemendik aurrera ohitura hartu beharko duzu behar ez diren gauzak ez erosteko, eta erosketak zentzuzkoak egiteko: paperezko mukizapiak ez erosteko, ezta platerak, edalontziak edota serbilletak ere. Erosi bakarrik berriro erabil daitezkeenak, hau da, erabilera ugari dituztenak, horrela produkzio kopuruek beherakada sakona izango dute eta.

Etika aldetik arrazoi ugari badaude kontsumismoa deusestatzeko, gizakiak gizakia bezala bizitzeko, materialismoa hutsan ez gelditzeko. Badaude arrazoi pila. Zenbat aldiz entzun dituzu? Zertarako errepikatu? Hala ere, betiko egingo dugu: kasorik ez.

Bada garaia arriskuaz jabetzeko: kontsumismoa akatu. Gure erantzunaren beharra badago.

KAZKARROAN

Jenero xumekoak

□ Beach Pub-etiko gogoetak

Adelaida ederra bezain ukiezina zen, eta makina bat aldiz bere faboreak lortzen saiatuak ginen. Dena alferrik. Horregatik betiko tristetu ginduen jakin izanak Donostiako kaian, eskife batean, 'pies negros' delako batekin larrutan ari zela, itsasoaren altzoan.

JUANTXO URDIROZ

B H A E I U S I B X U I
T I U N Z G U L O S R A
J S D R G A R O J A Z R
A D Z A M H P U K O A H
S E R O N X I N B E I N
H D A J U K O E K Z N T
E P I Z A R O D A I K O
L A E T R I R Z E M I B
O S B E N P A X E T O U
I H L A U D R I L O K I
U E S E Z O R R A T Z U
A I B M J I H M O A U K

LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Erronkari Ibarra osatzen ditzuzten udalerrien izenak. Herri izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalen irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Hatsa ere gezurra du. Oso gezurtia denari buruz esana.

Utzama

Ulikeritan egon.

Behar handirik gabe.

Aldatz (Larraun)

Ero batek besteari:

—Zer ordu da?

—Ez al duzu ikusten horman dagoen ordularia ala?

—Eta ongi al dago ordulari hori?

—Nola egongo da ba ongi. Ongi egongo balitz ez zuten hona ekarriko.

Bizi Bizian

Riau-Riau gabe aurten ere

Alfredo Jaime Iruñeko alkateak aste honetan baieztatu du joan den astetik ezaguna zena: udal korporazioa ez da prozesioan joango ekainaren seian San Saturnino elizan egingo diren bezperetara. Hau da, ez da Riau-Riaurik izango. Iazko istiluen ondotik Jaimek horrelako erabakia hartzeko asmoa azaldu zuen, baina erabakia ez dute begi onez ikusi udal taldeek, eta bere kabuz aritzea leporatu diote. Peñek, bitartean, 'Riau-Riauaren mahaia' osatzea proposatu dute berriro, eta kalean ekitaldi alternatiboa egingo ote deneko zurrumurrua zabalitzen hasia da. Kontuak, kontu, lehen-dabiziko aldiz, 1912 aldera jaio zena ez da aurtengo egitarauan izango. Gehienen atsekaberako.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Horrelako erabakia iaz izandako gertakizun latzen ondoren iragarri bazen ere, joan den hilaren amaiera arte ez zuen jakin erazi Alfredo Jaime alkateak. Hain zuzen ere peñen batzordearekin egindako bilera batean baieztatu zuen Jaimek bere erabakia, udal taldeak eta peñen gaitzespena izan duen erabakia, halere. Erabakia iazko istiluek bultzatuta hartu zela adierazi zuen alkateak, baina orduan talde guztiek ekitaldia berriro planteatzeko beharra azpimarratu bazuten ere, Riau-Riau aurten bertan behera uztea ez du bakar batek ere begi onez ikusi.

Eman ere, soilik UPNko udal taldeak eman bait du erabakiaren aldeko oniritzia, «behin-behineko neurria bait da, berreskuratzeko baldintza egokiak izan arte», Santiago Cervera zinegotziak azaldu zuenez. Alkateak ere erabakia ez zela behin-betirako azaldu zuen. Gainontzeko udal taldeek, esan bezala, gaitzetsi egin dute Jaimeren erabakia, eta Udalaren gehiengo batzertzea leporatu diote.

Peñen Batzordeak, berriz, idazki bat kaleratu zuen erabakia ezagutu bezain laister, eta 'Riau-Riau-ren Mahaia' osatzeko beharra azpimarratu zuten. Mahai honen proposamena frankotan aurkeztu da udal txean, baina inoiz ez da aurrera eraman. HBk ere Riau-Riau berreskuratzeko modurik egokiena deritzo mahai honi, eta bertan, Biurrun zinegotziaren esanetan, mota guztietako taldeak sartuko lirake, udal talde eta peñekin batera. «San Ferminetako jaietan zer esanik duten guztiek hartuko lukete parte: udal talde politikoak eta udaletik kanpo daudenak, peñak, konpartsak, barrakak, intsumisoak eta abar. Bertan Riau-Riauak dituen arazoak eztabaidatuko lirake, bai politikoak nola teknikoak».

EKITALDIA Egunotan, halaber, **EZ** ekitaldi ofiziala **OFIZIALA** egin ezik beste antzeko ekitaldi ez ofiziala egingo zeneko zurrumurrua zabalitzen hasia da, baina udaletxean zein udal taldeetan horri buruz deus ez zekitela adierazi dute. Peñek ere deus ofizialik ez esateko erabakia hartu dute, nahiz eta gaiari buruz prentsurrekoa aste honetan bertan eman behar zuten.

Aurten, beraz, eta bere historia luzean lehen-dabiziko aldiz, ibilbide bitxi hau ez da egitarau ofizialaren barruan agertuko.

Riau-Riau mende honen hasieran jaio zen, urte batzuk lehenago estreinatu berria zen Astrainen Vals-i koadrila gazte bategen dantza eta abestiak gehitu zizkionean. Vals hau espreski



Azkenotako Riau-Riau, Chorraut alkatea zelarik.

JOXE LACALLE

egin zuen Astrainek XV mendetik egiten zen Bezperako prozesioari laguntzeko.

Riau-Riauak izugarritzko fama hartu zuen harez geroztik, eta protestaldi eta haserreak patxa-

daz erakusteko toki aproposa bihurtu zen. Urtetik urtera mizatu zen, baina, giroa, eta iaz udal taldeak ezin izan zuen atara ere egin udaletxetik, historiaren bigarren aldiz.

Larrion: «Peñei dagokie ekitaldia salbatzeko ardura»

A.B. / IRUÑEA

Jose Luis Larrion iruinsema San Fermin jaien inguruko ohi-tura eta berezitasunak hobekien ezagutzen dituenetakoa da, Perez Salazarrekin batera urte askotan zehar bultzatzaile eta animatzaile aparta izan bait da.

Larrionek ez du begi onez ikusten Riau-Riau kentzea baina, onartu duenez, ez dio beste irtenbiderik ikusten. «Galtzen bada penagarria litzateke, arrunt penagarria, baina Udalak ez dauka errurik, egoera hau sortu dutenek baizik». Bere ustez, ekitaldia salbatzeko aukera bakarra peñek eta gaztediak izan dezakete. «Haiek dute Riau-Riau salbatzeko ardura, izorratu dutenak haien girokoak direlako. Eta ez naiz politikaz ari, giroaz eta adinaiz baizik».

Larrionen ustetan, aurten kentzea agian soluziobidea litzateke beste urtetarako, baina betirako desagertzeari ez dio onik ikusten, «espontaneo den guztia, berez, polita eta atsegina delako. Hala ere, gauza guztiek muga behar dute izan, eta kasu honetan muga hauek gainditu egin dira. Betidanik izan da udal taldeari txistua eta egiteko ohi-tura, baina azkenotan, gehiegizkoa izan da».

Bere ustez, urte batean ez egi-teak, akaso, onuragarria izango litzateke jarrerak aldatzeko. «Jendea konturatuko litzateke muturreraino joateak ez duela onik ekartzen, eta, nere ustez, hobe izango litzateke aurrerantzean».



Iazko istiluetan zauritu eta atxilotu franko izan zen.

JOXE LACALLE

Asko galduko dugu

FELIPE GORRITI
MUTHIKO ALAIA-KOA

Dirudienez aurten ez da Riau-Riaurik izango. Ez dira zinegotziak udaletxetik aterako dotore-dotore. Ez dugu Pamplonesaren eskutik-instrumentuetatik Astrainen Valsa entzun ahal izango. Uz-tailaren 6 honetako bazkalostean ez gara udaletxera joango, asko galduko dugu guztiok Jaimeren erabakiarekin.

Eman dezagun txupinazoan jendea sartzen debekatuko balute edota zezen plazara sangria eragotziko balute. Riau-Riauak, dena den, ezaugarri propioak ditu. Bere fondo eta forma dauka. Zentzu honetan, antzerki bat besterik ez litzateke izango, eszenografia ikusgarri batekin: konpartsa, Pamplonesa, frakak, txisterak, eta abar.

Bestalde, San Ferminetako bigarren ekitaldi 'ofizial' hau, urrutirago doa. Astrainek asmatuiko Valsaren doinua himno bat da, sinbolo bat. Musika honen neurri solemneek garai batetako Iruñera eramaten gaituzte, dianek beteko luketen paperaren antzera. Eta nere ustez, hein handi batean, behintzat, jaien arrakasta honetan datza. Hots, Iruñeak beti eduki duen kutsu kontserbatzaile-tradizionalistari horri eutsiz, San Ferminak errelikia bat da. Guztiok mitifikatu eta adoratzeko dugun errelikia. Historiaren erlojua geldirik dago San Ferminetan.

Beraz, ezin da ezer berri espero Riau-Riauaren inguruan. Ezin dezakegu pentsa korporaziorik gabe ez dela ezer aldatuko. Zinegotziei buruzko iritzia iritzi, garai bat atzean utzi dugula pentsatuko dut.

Jose Antonio Lezea

Erremontista

«Garrantzitsuena ahalegina da»

TXARO SATRUSTEGI / IRUNEA

EGUNKARIA.— Udaberri Torneoa jokatzeko duzun lehendabiziko aldia izan da hau eta irabazi egin duzu. Zer da garaipen hau zuretzat?

JOSE ANTONIO LEZEA.— Moral handiarekin hasi nuen torneoa, joku aldetik oso ongi negoen eta. Gainera, zozketan egokitu zitzaidan bikotearekin pozik geratu nintzen. Torneoa hasi eta maila onean aritu ginen Eizagirre eta biok, faborito bezala eman ziguten hasieratik, nahiz eta horri kasu nahdirik ez zaion egin behar. Hala ere, azkenean horrela izan da eta irabazi dugu. Hau izan da jokatu dudako lehendabiziko torneo eta txapela irabazteak ilusio izugarria eman dit.

EGUNKARIA.— Finala irabazi eta gero zenbaitek esan dute bigarren partiduetara pasatzeko prest zaudela, erremontista onenekin jokatzeko moduan zaudela.

LEZEA.— Hitz egiten da, komentatzen da, baina hori erakutsi egin behar da. Torneoa irabaztea denontzat eragingarria izan daiteke, pilotariarentzat, enpresarentzat eta publikoarentzat ere bai. Bestela, ez badira horrelakoak egiten eta astero soilik enpresaren partiduak jokatzeko badira aspergarri bihur daiteke. Txapelketa hauek, torneoek, giroa asko mugitzen dute.

EGUNKARIA.— Baina zuk, momentu honetan, pentsa dezakezu gai zarela primerako pilotariarekin jokatzeko, bere mailan zaudela, oso torneo ona egin duzulako.

LEZEA.— Hori gehiegi esatea dela iruditzen zait, ez dut nahi baietz esan, baina ezezkua pentsatu ezta ere. Bigarren partiduetara pasatzea gustatuko litzaidake, baina ez da hain erraza. Denek diote torneo hau gora egiteko tranpoli-

na dela, eta egia esateko, nolabait pasatu behar da, eta irtenbide bat izan daiteke. Baina orain egin behar dena lana da, lan asko. Uda aldean, gainera, partidu gehiago egoten dira eta hor erakutsi egin behar da. Hainbeste partidu egotean aukerak badaude handietan jokatzeko, eta erraztasunak ematen badizkizute eta aprobetxatzen badituzu, aukerak badaude. Lan asko egin beharko goiari eusten saiatzeko.

EGUNKARIA.— Udaberri torneoaren alde batera utziz, nola hasi zinen erremonte munduan?

LEZEA.— Berandu hasi nintzen, hamazortzi urte nituen nere lehendabiziko erremontea hartu nuenean. Txikitatik eskuz jokatzeko, baina koskortu ondoren ahalegin gehiegi egin behar zela eta, palaz hasi nintzen, erosoena delako. Garai haietan Iruñeko klubetan batean hasia pentsatzen nuen, palaz ziren torneoetan eta abar. Baina Kike Elizalde erremontistaren aitak palaz ez zuela irtenbide handirik eta erremonteari frogatzeko esan zidan. Kikek berak emandako erremonte batekin hasi eta bi urtez aritu nintzen entrenatzen Iruñeko Euskal Jai pilotalekuan, gero soldaduska bukatu eta hiru edo lau hilabete aritu ondoren debutatu nuen profesional mailan, orain dela lau urte t'erdia.

EGUNKARIA.— Asteroko partiduak aparte, zer nolako prestaketa egiten duzu zure kabuz?

LEZEA.— Egunerok, bai goizetik edo arratsaldetik, mendira joaten naiz, footing, gimnasia eta ariketak egitera. Lasterkan aritzea da gehien egiten dudana, mendian ez bada inguruko bideetan, baina ez pentsa nabilela korrikalariak bezala, ahalegin piska bat egunero, besterik ez. Bestalde, astean bitan gimnasioara joaten naiz

Joan den igandean Galarretan jokatu zen udaberri erremonte txapelketan Lezea-Eizagirre atera ziren garaile, Lekunberri-Etxeberriaren aurrean. Altsasuko aurrelariaren lehendabiziko torneoaren honako hau, eta txapelketa oso

garrantzitsua izan daiteke bere etorkizunerako. Burundako herrian erremonteari dagoen tradizio apartaren jarraitzaile, primerako partiduetan jokatzeko deiarren zain dago Lezea. Erreza ez dela izango jakinda ere.



Galarretako igandeko finalean.

JOXEAN GOYA

ariketa batzuk egitera, eta gero enpresaren partiduak jokatzeko ditut. Aste batzuetan, partidu bat bakarrik jokatu badut, Galarreta edo Euskal Jai pilotalekuetara joan eta entrenatzen dut, partidu bat astean oso gutxi iruditzen zaidalako.

EGUNKARIA.— Parrandak ez dira kirolarien lagunak, edo behintzat horrela esan da beti. Sakrifizio handia egin behar da erremontean jarraitzeko?

LEZEA.— Ez da sakrifizio handia, baina zerbait nahi duenak egin beharrekoak bete behar ditu, bestela ez dago jarraitzerik. Zaindu behar dituzu zeozer bazkariak, koipe gehiegi ez jaten eta edariak ere bai. Baina ez da dieta zehatz

bat, guk geure buruari jartzen dioguna baizik. Egia esan, erremontea asko gustatzen zait eta gustora egiten dut sakrifizio hori.

EGUNKARIA.— Altsasu herrian erremontista izatea ez da gauza arraroa, asko bait daude. Ez da oso normala erremontean aritzeko hainbeste joera egotea eta beste pilota motak hain harrera gutxi izatea.

LEZEA.— Beno, nik uste dut Jaimito Elizalderen eraginagatik dela, bera 1950ean debutatu zuen eta ondoren erremontista asko atera ziren, batzuk oso onak gainera. Jaimito onenetakoa izan zen eta hori ikustean gazteak animatu zirela uste dut, eta erremonteari hasi. Orain, egia

esateko, ez dago gazte asko entrenatzen, bat edo beste bakarrik. Altsasun ez dago erremonte eskola beste herri batzuetan bezala.

EGUNKARIA.— Elizalderen eraginak edo laguntzak garrantzia izan zuten zure debutean?

LEZEA.— Laguntza igoal bai, baina garrantzitsuena bakoitzaren ahalegina da, ni bezala beste gazte batzuk bazeuden eta norbaitek debutatu behar zuen. Nik

Oso berandu hasi nintzen erremonteari, hamazortzi urte nituela. Txikitik eskuz eta palaz aritu nintzen, baina lehena gogorra zela eta bigarrenak etorkizunik ez zuela, Jaimito Elizaldek erremonteari frogatzeko esan zidan.

uste dut joku aldetik hobekien zegoena debutatu zuela. Horretaz gain, Federazioaren esku egoten da, jendea behar duten edo ez. Orain ere, San Ferminetan, debutatuko dute beste gazte batzuk, partiduetan hobekien jokatzeko ari direnak.

EGUNKARIA.— Orain hirugarren partiduetan zabilta, noiz arte?

LEZEA.— Hori ezin da esan, baina hemendik bigarren partiduetara saltoa berehala egin behar da, gogoak behintzat ez zaizkit falta. Kontutan hartzen banaute prest egongo naiz, hori enpresaren esku dago, beraiek erabaki behar dute.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERGA

